

“HEZKUNTZA ETA ANIZTASUNA” LAN-MAHAIA

**VITORIA-GASTEIZEN
ESKOLA-SEGREGAZIOARI
AURRE EGITEKO AZTERKETARAKO
ETA PROPOSAMENEN AGIRIA**

2016ko abenduaren 19an

AURKIBIDEA

SARRERA	3
HURBILKETA DIAGNOSTIKOA	6
PROPOSAMENAK	11
PREMIAZKO NEURRIAK	11
MATRIKULA BIZIAREN KUDEAKETA	12
SARRERAREN KUDEAKETA	13
HEZKUNTZA-POLITIKA	14
IKASTETXE SEGREGATUEI LAGUNTZEKO NEURRIAK	15
DESABANTAILAK DITUZTEN IKASLEEI ETA FAMILIEI LAGUNTZEKO NEURRIAK	16

SARRERA

2016ko apirilaren 22an, Vitoria-Gasteizko Udalaren Ohiko Osoko Bilkuran, Vitoria-Gasteizen euskal eskola publikoaren alde egiteko Plataformaren izenean aurkeztutako mozioa onetsi zen aho batez. Eskola integratzaile eta hiri hezitzailearen aldeko mozioa zen.

Onetsitako mozioaren puntuei dagokienez, ondokoa zehaztu beharko genuke: *"Vitoria-Gasteizko Udaleko osoko bilkurak udal Gobernuari eskatzen dio erakundeen arteko mahai baten osaketa zuzendu dezala, hirian eskola-segregazioak sortzen duen arazoari aurre egiteko. Foro horretan, Denon Eskolak egon beharko du. Mahaiak kudeatzeko plan bat egingo du, non egoeraren azterketa eta neurri zehatzak jasoko diren, baita neurri horiek abian jartzeko eta horien efikazia ebaluatzeko egutegi zehatza ere".*

Vitoria-Gasteizko Udalak herritarren eskaria eta aipatutako akordio politikoa bideratu zuen, nahastuta dauden erakunde eta eragileen artean topaketarako, komunikatzeko eta lan egiteko eremu bat sortzeko beharra ikusita. Beraz, Udaleko Hezkuntza Zerbitzuak eta Bizikidetzak eta Aniztasun Zerbitzuak, elkarrekin, Lan Mahaia osatzeko lan-prozesua diseinatu zuten. Zenbait hezkuntza- eta gizarte-eragilek, zenbait adituk, talde politikoek izendatutako hainbat ordezkari, Arabako Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzako batzuek eta aipatutako udal zerbitzuetako zenbait pertsonak osatu zuten aipatutako mahaia.

"Hezkuntza eta Aniztasun"ari buruzko Lan-Mahaia ekainaren 28an osatu zen, eta ondoko erronka hartu zuen gain: antzemandako eskola-segregazioari aurre egiteko zenbait lan-proposamen gauzatzea 2016. urtean, betiere esparru zabalago baten barruan, hots, errespetatzen duen eta aniztasuna integratzen duen gizartea eraikitzeko esparruan.

Bi lan-helburu adostu zituen. Alde batetik, udalerrian dugun eskola-segregazioaren arrazoiei eta ondorioei buruzko azterketa egitea denon artean eta, beste alde batetik, Hezkuntza Administrazioari, Udalari, ikastetxeei eta nahastuta dauden hezkuntza- eta gizarte-eragileei helarazi beharreko zenbait lan-proposamen egitea.

Lan-Mahaiaren egitekoa eskola-segregazioa aztertzean eta horren inguruan proposamenak egitean oinarritu bada ere —jatorrizko herrialdetik edota indize sozioekonomiko eta kultural txikiagatik sortzen den segregazioa—, Mahaiak agerian utzi nahi du aipatutako arazoaz gain badirela aniztasun funtzionalarekin, genero-berdintasunarekin, genero-identitatearekin eta sexu-aniztasunarekin, besteak beste, lotutako beste arazo batzuk. Horiek guztiak ere aztertu eta horien inguruan hobetzeko proposamenak egin beharko liriateke hezkuntza-politika arloan; izan ere, eskola inklusiboan jarraitu behar da aipatutako ikuspegiak integratzen, ikasle guztientzako berdintasun- eta inklusio-printzipioetan aurrera egitearren.

Esan bezala, lan-mahaia ekainaren 28an osatu zen ondoko entitate eta pertsonarekin:

- Hezkuntza- eta gizarte-eragileak: Euskal Eskola Publikoaren aldeko Manifestua Vitoria-Gasteizen, DENON ESKOLA, FAPACNE, SAREAN, BIHE, KRISTAU ESKOLA, ERKIDE, AL-INDIMAY Elkarteak, KOLONBIA- EUSKADI Elkarteak.
- Zenbait pertsona partikular gisa: Samira Bouassaoui, Amelia Barquín eta Inma Ortega.
- Irabazi Ganar, EH-Bildu Gasteiz eta Podemos Vitoria-Gasteiz Udal talde politikoek hautatutako pertsonak. EAJ-PNV eta PSE-EE udal taldeek esan zuten hautatutako pertsona teknikoak Mahaian parte hartzen zuten Udaleko Hezkuntza Zerbitzuko eta Bizikidetzak eta Aniztasun Zerbitzuko teknikariak zirela.
- Arabako Hezkuntza Lurralde Ordezkaritza.
- Vitoria-Gasteizko Udaleko Bizikidetzak eta Aniztasun Zerbitzua eta Hezkuntza Zerbitzua.

Lan-kronograma, zenbait lan-saioren bitartez gauzatu zen; kanpoko aholkulari aditu batek dinamizatu zituen aipatutako saioak. Lau hilabetean, Mahaiak 8 lan-saio egin zituen.

Udaleko Eskola Kontseiluarekin (abendua 13a) eta Bizikidetzarako eta Aniztasunerako Elkargunearekin (abendua 14a) batera aurkeztu eta kontrastatu zen zirriborro-agiria eta, horren ostean, behin betiko proposamena egin zen.

Proposamenak egiteko prozesuan, Mahaiak ikusi zuen interesgarria zela aztertzea antzeko arazoa duten beste udalerrri batzuetan abian jarritako zenbait esperientzi arrakastatsu. Hortaz, urriaren 27an, ez-ohiko saio bat egin zuen Bartzelonako Universitat Autònomaeko soziologiako irakasle Xabier Bonalekin. Irakasleak ondoko azterketa zuzendu zuen: *Municipis contra la segregació escolar. Sis experiències de política educativa local*. (Argitaletxea: Fundació Jaume Bofill. Bartzelona, 2012).

Beste lan-esperientzia batzuk ezagutzeaz gain, saio horren bidez, Mahaian parte hartzen ez zuten beste pertsona eta eragile batzuekin topatzeko eta hausnartzeko aukera izan genuen. 34 pertsona etorri ziren (18 emakume eta 16 gizon).

Zehaztutako lan-prozesuari esker, agiri hau egin da, eta ondoko ataletan egituratzen da:

1.- Hurbilketa diagnostikoa; antzemandako eskola-segregazioaren egoera jasotzen saiatu gara, ikuspuntu kuantitatibo eta kaulitatibotik.

2.- Proposatutako neurriak; zehaztu dugu zer entitatek duten aipatutako neurriak gauzatzeko eskumena eta zein hezkuntza- eta gizarte-eragilek duten garapenaren ardura.

Proposatutako neurriak ondoko ataletan antolatu ditugu:

- Premiazko neurriak.
- Matrikula biziaren kudeaketa.
- Sarreraren kudeaketa.
- Hezkuntza-politika.
- Ikastetxe segregatuei laguntzeko neurriak.
- Desabantaila-egoeran dauden ikasleei eta familiei laguntzeko neurriak.

HURBILKETA DIAGNOSTIKOA

Eskola-sisteman dagoen segregazioari buruz eta immigrazioaren fenomenoari buruz azken urteetan argitaratu diren zenbait txosten eta agiri aztertu dira diagnostikoaren urratsean.

Bi azterketa-eremu desberdin badira ere, biek ondorioztatzen dute familien indize sozio-ekonomiko eta kulturalak faktore erabakigarria dela eskola-segregazioari dagokionez.

Arazoa da antzeman dela ikastetxe jakin batzuetan gehien bat atzerriko jatorria duten ikasleak eta indize sozio-ekonomiko eta kultural txikiko ikasleak dituztela, eta hemengo ikasleak ez direla aipatutako ikastetxeetan matrikulatzen.

Vitoria-Gasteizko ikastetxe askotan, atzerriko ikasleen ehunekoa Eusko Jaurlaritzak gomendatutakoa (% 30ekoan finkatu du) baino handiagoa da. Aintzat hartuta atzerrian jaiotako pertsonak guztira biztanleen % 11,8 direla (ehunekoa % 8,9ra murrizten da nazionalitatea kontuan izanda), eta auzoka aztertuta, atzerritar gehien dituen auzoaren ehunekoa 17,5koa dela, ez du ematen hirigintza-kontzentrazioa erabakigarria denik justifikatzeko zenbait ikastetxetan % 30 baino gehiagoko ikasle atzerritar dituztela; ikastetxe batzuetan % 80 dira. Gainera, auzo berean ikastetxeen ehunekoak oso bestelakoak direla ikusi da.

Askotan, desoreka ikastetxe publiko-itunduen dikotomiaren bidez azaltzen da; baina ikastetxeen titulartasunetik haratago, arazoa konplexuagoa da; izan ere: sare publikoko ikastetxe guztiek ez dute atzerriko jatorria duten ikasleen kontzentrazio handia, eta titulartasun pribatuko guztiek ez dute soilik hemengo ikasleak hartzen. Hortaz, ikastetxe publikoetan zein ikastetxe itunduetan aniztasuna dute; hori dela eta, sareen barruko azterketa egin beharra dago.

Sareen barruko konparatze-azterketa eginez gero, alde handia ikusten da ikastetxe publiko eta ikastetxe pribatu itunduen artean. Oro har, atzerriko jatorria dutenak sare publikoan kontzentratzen dira gehien bat.

Gainera, ikasleak gazteagoak diren heinean, kontzentrazioa handiagoa da:

- Hiriko ikastetxe publikoek atzerritar jatorriko ikasleen % 95 eskolatzen dituzte Haur eta Lehen Hezkuntzako etapetan, eta ikastetxe pribatu itunduetan gainontzekoa, % 5.
- Gomendatutako ehunekoa gainditzen dituzten hiriko 20 ikastetxeetatik, bakarra da pribatua.
- Vitoria-Gasteizko ikastetxe pribatu itunduetan, 2009tik 2013ra indize sozio-ekonomiko eta kulturalaren batezbestekoa sare publikoan baino handiagoa izan da. Gainera, aipatutako batezbestekoa EAEkoa baino handiagoa da. Sare publikoan, berriz, ikastetxeetako indize sozio-ekonomiko eta kulturalaren batezbestekoa EAEkoa baino txikiagoa da.

Badira aintzat hartu beharreko beste zenbait gogoeta:

- Jatorri atzerriko ikasle gehiago dituzten ikastetxeei matrikula bizi handia esleitzen zaie guztira dituzten ikasleak aintzat hartuta.
- Hasierako hezkuntza-zikloetan euskaraz eskolatzen diren ikasle atzerritarren kopurua gero eta handiagoa denez, A eredia eskaintzen duten ikastetxeak ez ezik, D eta B ereduak dituzten ikastetxe asko ez dira erakargarriak, jada, hemengo biztanleentzat.
- Ikastetxeek prozesu asko dituzte ikasleak modu ez-formalean aukeratzeko, eta "barra libre" izenarekin ezagutzen den aldia da horietako bat. Matrikulazio-eparean ostean, familiak ikastetxeetara joaten dira zuzenean, eta ikastetxe horietan arreta egiten dietenek nolabaiteko aukeraketa ezkutua egin dezakete.
- Vitoria-Gasteizen hainbat familiek hezkuntza-sistemaren gizarte-kohesioan sinesten dute, eta hiriaren errealitatea gain hartzen duen eskolaren aldekoak dira. Beste familia batzuek aldiz, atzerriko ikasleak dituzten ikastetxe jakin batzuk saihesten dituzte.
- Hemen azaldutako egoera berria ez bada ere, eta ondo baino hobeto ezagutzen badugu ere, administrazioak ez du eraginkortasunez esku hartu, eta haustura gero eta handiagoa da.

- Eskola-komunitatean gurasoen parte-hartzea, oro har, txikia da. Ikastetxe horietan, gurasoen elkarteak gero eta ahulagoak dira, eta halakorik badute, laguntza handia behar izaten dute.

Hurbilketa diagnostikoan, egoera horrekin jarraitzearen ondorioei buruz hausnartu da, eta ondokoa ondorioztatu da: eragindako ikastetxeetan atzerritar jatorriko ikasle edota indize sozio-ekonomiko eta kultural txikiko ikasle asko kontzentratzeak estigmatizatzea dakarrela eta, gerora begira, galdutako aukera bat dela. Ikasleak eta, ondorioz, familiak klase sozialaren eta jatorriaren arabera bereiziz gero, gizarte-kohesioa zailagoa da, alboko herrialdeetan ikusten den bezala; ez genuke hori gure eremuan bizi nahi.

Horrez gain, gogoratu beharra dugu indize sozio-ekonomiko eta kultural txikiko ikasleak ikastetxe batean kontzentratzeak eragin txarra duela ikaslearen errendimendu akademikoan, ebaluazio diagnostikoek erakusten duten bezala.

Kausei dagokionez, nabarmendu behar dugu familiek ez dituztela baldintza berberak ikastetxe jakin batzuk aukeratzeko orduan, eta zenbait faktorek baldintzatzen dutela aukeratzeko askatasuna; horien inguruan esku hartu beharko genuke.

Elkarrekin indartzen diren faktore horietako bi ondokoak dira:

- Alde batetik, indize sozio-ekonomiko eta kultural txikiko familia etorkinek aukera txikia dute ikastetxea hautatzeko, iristen zaien informazioa mugatua delako eta ikastetxeen artean desberdintasunak daudelako kostuari dagokionez.

Hortaz, aintzat hartu behar dugu familiek ordaindu behar dituzten kuotak disuasio-elementu bat direla errenta txikiko familietatik datozen adingabeak ikastetxe jakin batzuetan matrikulatzeko orduan. Horregatik ere biltzen dira errenta txikiko familiak eskola jakin batzuetan, eta klase ertain edo altuko familiak beste ikastetxe batzuetara joaten dira. Horren ildoan, Erkidek eta Kristau Eskolak aipatu dute itunaren bidez ez direla ikastetxean sortzen diren gastu guztiak ordaintzen.

- Beste alde batetik, *aniztasuna* gain hartzen duten ikastetxeek (aniztasunaren forma jakin bat, ez hiriaren aniztasun naturala) laguntza eta baliabide gehiago behar dituzte, hezkuntza-sistemaren bidez desberdintasunak arintzeko lana era egokian egin ahal izateko. Beharrezko baliabidez hornituz gero, familientzat nahiko erakargarri izango den hezkuntza-proiektua gauzatu ahal izango dute;

horri esker, ikastetxe horietan hobetu egingo da seme-alabak matrikulatzen dituzten familien aniztasuna.

Gizarte moduan, arazoak ditugu kultura-aniztasuna integrazioaren giltzarri gisa kudeatzeko. Horrek lotura du jasotako oinordetzarekin: historian zailtasunak izan ditugu baldintza sozio-ekonomikoaren aniztasuna aipatutako giltzarriarekin kudeatzeko. Badira elkarrekin doazen baina zehatz-mehatz gauza bera ez diren bi ikuspegi (errenta eta jatorri), eta biek segregazioa sortzen dute. Alde batetik, immigrazioaren ikuspuntua lotzen da errentari, kulturari, jatorriari, erlijioari etab.i buruzko hainbat egoerarekin, baina ikuspegi horiek ez dira ikasle etorkinekin agortzen; izan ere, ikasle ijitoek ere beste kultura-ezaugarri batzuk ditu eta, batzuetan, baldintza sozioekonomiko ezegonkorrak. Amaitzeko, zehaztu behar dugu ijito ez diren zenbait ikasle ahuldade sozioekonomiko bereziko egoeran daudela, nahiz eta haiek eta familiek jatorri nazionala eduki.

Azaldutako egoera dela-eta, botere publikoek hausnarketa sakonagoa egin behar dute halaberrez segregaziorantz doan gizarte honen norabidea aldatu ahal izateko; gizarteak etorkinei integratzeko exijitzen die baina, aldi berean, ezin die horretarako bide egokiak eskaini; izan ere, behetik, eskolatik, gizarte-desberdintasunak errepikatzen dituen sistema bat du, desberdintasunak gainditzearen alde eta pertsona guztientzako aukera-berdintasunaren alde egin beharrean.

Pertsona guzti-guztien balioaren aldeko apustua egiten dugu, eta apustu horretatik abiatuta, hezkuntza-kalitatea ondokoa dela ulertzen dugu: trebakuntza akademiko eta pertsonal egokia eskaintzea, norberak munduan bere lekua aurki dezan eta horren eraikuntzarekiko konpromisoa har dezan. Horretarako, ikastetxe ireki, abegikor eta inklusiboak behar ditugu, epe ertain eta luzean euskal gizarte berdintsuagoa eta kohesionatuagoa lortzen lagunduko digutenak. Aipatutako gizartean, aniztasuna, aberastasun gisa bizi ahal izango dugu etengabe hitz egiten eta kultura-sintesian gaudelako eta, aldi berean, gero eta txikiagoak izango dira diru-sarreraren aldetik dauden desberdintasunen ondorioak. Hiriaren errealitatea ez da aniztasunik gabeko ikastetxeetan islatzen, ezta atzerritar jatorrizko ikasle asko dituzten ikastetxeetan ere; eta horrek ondorio garrantzitsuak ditu beharrei eta baliabideei dagokienez.

Derrigorrezko etapetan ikastetxea aukeratzeko orduan familiek zer nahi duten hartu beharko genuke kontuan, baina horrek bateragarria izan behar du jatorriaren, indize sozio-ekonomiko eta kulturalaren edo errentaren arabera ikasleak kontzentratzeko dagoen joera aldatzeko behararekin. Administrazioak, gainontzeko hezkuntza-

eragileekin batera, bi dimentsio horien arteko orekaren alde egin behar du; horren esker, ez da egongo berdintasun-baldintzetan kalitate oneko hezkuntza jasotzeko eskubidea ez duen familiarik. Administrazioak baliabide gutxiago dituzten familiei edozein ikastetxetan hezkuntzarako eskubidea egikaritzeko aukera eman behar die, gizarte osoaren elkartasunaren adierazpen gisa.

Derrigorrezko hezkuntzan parte hartzen duten ikastetxe guztiek, ikaste publiko zein pribatu itundu izan, gizarte-erantzukizuna dute, finantzaketa publikoa jasotzen baitute. Kalitate oneko, egungo munduarekiko egokia den eta gizarte integratu eta bidezkoago baterantz eramango gaituen hezkuntza eskaintzeko baldintzak hiriko ikastetxe guztiek izan ditzaten lortzea da gure helburua. Hori dela eta, herri administrazioei, ikastetxeei eta gizarte-eragileei, epe ertain edota luzerako hezkuntza-politikak aldatzeari buruz egiten zaizkien gomendio estrategikoei, egungo errealitatetik aintzat hartu beharko dituzte, bat etorri behar baitute.

Lan-Mahaiaren iritziz horrela baino ez dugunez lortuko —aldaketa erraztuko duten neurri eta baliabide bihurtu diren erabakien bidez— gizarte bidezko, solidario eta kohesionatuagoa osatzea, zenbait jarduera-neurri proposatu ditu, eta jarraian dagoen atalean jaso dira.

PROPOSAMENAK

Vitoria-Gasteizko Udalak deitutako "Hezkuntza eta Aniztasun"ari buruzko Lan-Mahaiak, eskola-segregazioa aztertzeko eta horren inguruan proposamenak egitekoak, proposatu du Hezkuntza Administrazioak premiaz abian jar ditzala jarraian azaltzen diren neurriak. Ikasle mota guztiak (maila sozio-ekonomiko, jatorri eta kultura desberdineko ikasleak) Vitoria-Gasteizko ikastetxeetan (ikastetxe publikoetan zein pribatu itunduetan) modu orekatuan bana daitezten lortzea dute helburu aipatutako neurriek.

Horrez gain, Vitoria-Gasteizko Udalari dagozkion neurriak abian jar ditzan proposatzen zaio, helburu berarekin; jarrian zehazten direnak dira.

Garrantzitsutzat jo da entitate biek sei hilabetean behin helburua noraino bete den ebalua dezatela; Udal Eskola Kontseiluari horren inguruko informazioa eta eskatzen dituen datu osagarri guztiak emango dizkiote.

Eskola-segregazioa aztertzeko eta horren inguruan proposamenak egiteko "Hezkuntza eta Aniztasuna" Lan-Mahaiak proposatutako neurriak daude jarraian.

1.- Premiazko neurriak:

1.1.- Bereziki interesgarritzat jo da Eskolaratze Bulegoak sortzea; Eusko Jaurlaritzak kudeatu beharko ditu, lurralde-ezarpena izango dute eta, beharrezkoa balitz, udal ezarpena izango lukete. Aipatutako bulegoetan, lan horretarako trebakuntza duten langileek egin beharko lukete arreta. Funtzioei dagokienez, ondoko lanak gauzatu beharko dituzte:

- a) Familiei informazio eta orientazio pertsonalizatua eskainiko diete ikastetxea aukeratzen laguntzeko. Beharrezkotzat jotzen denean, baloratzeko eta prozesuan laguntzeko zenbait funtzio egin beharko dituzte.
- b) Ikasleen matrikulazioan parte hartuko dute, ikastetxeekin batera, bai ohiko epean bai epetik kanpo, aukera-berdintasuna sustatzeko eta ikasleak aukeratzeko prozesu ez-formalak eragozteko, esaterako, "barra libre" izenekoak, desagertu behar dela uste baitugu.

c) Ikastetxeen eta sareen arteko oreka sustatuko dute, atzerritar jatorriko ikasleen matrikulazioari edota indize sozioekonomiko eta kultural txikiko ikasleen matrikulazioari dagokionez.

d) Goiz antzemango dituzte berezko hezkuntza-premietara bideratzen diren ahulgarritasun-egoerak; ikastetxeekin koordinatuta egin beharreko lana da.

1.2.-Derrigorrezko hezkuntzaren doakotasuna bermatzen dituzten neurriak, bai ikastetxe publikoetan bai pribatu itunduetan; errenta txikiko familietatik datozen ikasleentzat izango dira. Horri esker, familia horiek ez dute ezer ordaindu beharko araututako derrigorrezko hezkuntzagatik.

1.3.- Jarduera osagarriak edo eskolaz kanpoko jarduerak gauzatzeagatiko kuoten kontrola bermatuko dituzten neurriak; gehienezko zenbatekoak ezarriko dira, baita errenta txikia duten familientzako laguntza ekonomikoak ere.

1.4.- Hezkuntzako Ikuskaritzak gauzatu beharreko kontrol neurriak, ikasleen artean egin daitezkeen hautaketak saihestearren, esaterako, jarduera osagarriekin edo eskolaz kanpoko jarduerekin lotura ez duten ordainketak egin behar izatea. Ordainketa horiei esker, praktikan, ikastetxeek familiak aukera ahal dituzte arrazoi ekonomikoak direla-eta.

2.- Matrikula biziaren kudeaketa:

2.1.- Hezkuntza Administrazioak hiriko ikastetxe guztiak aintzat izan behar ditu (publikoak eta pribatu itunduak) heldu berri diren ikasleak matrikulatzeko prozesua planifikatzeko orduan; horrela bada, segregazio-tasa handiagoa duten ikastetxeen hobekuntza sustatuko da.

2.2.- Horrez gain, ondokoa ere beharrezkotzat jo da: Hezkuntza Administrazioak zenbait neurri hartu beharko ditu talde-gelaren egonkortasuna sustatzeko, eta ikasturtean zehar sartzan diren ikasle berriei dagokionez, gela bakoitzean gehienez sar daitezkeen ikasleen kopurua ezarri beharko du. Garrantzitsutzat jo da bi ikasleen kopurua ez gainditzea, 2009an Eusko Legebiltzarrean onetsitako Legez besteko Proposamenarekin bat etorriz, non heldu berri diren ikasleak eskolatzeko orduan gainditu ezin den gehienezko kopurua finkatzen den.

3.- Sarreraren kudeaketa:

3.1.- Lan-Mahaiaren ustez, barematzeko irizpideak berrikusi behar dira, aipatutako irizpideek ikastetxeen aniztasunaren alde egin dezaten eta eskola-segregazioari aurka egitearren. Hortaz, ondokoa proposatu da:

- a) Errentaren irizpideak, izatez, ahalik eta inpakturik txikiena sortu behar duela. Errentaren irizpideak, egun jasotako dagoen bezala (familia-errenta txikia saritzen da), ondokoa sortzen du: klase ertaineko familiek ezin dute ikastetxe publiko jakin batzuetara joan, eta aipatutako ikastetxeetan errenta txikiko familietatik datozen ikasleak biltzen dira gehien bat.
- b) Egun jasotzen diren kooperatibista izateagatiko puntuak eta OOGk ematen dituen puntuak kentzea. Hartu den irizpide orokorra bada ere, aipatu beharra dago Erkideren ustez egokia dela kooperatibista izatearen ondoriozko puntuak mantentzea, eta Erkidek zein Kristau Eskolak ondo ikusten dutela OOGk ematen dituen puntuak erabiltzea, neurri zuzentzaile gisa, ikastetxeetan aniztasunaren alde egin ahal izateko. OOGk ematen dituen puntuak kentzen ez badira, Lan-Mahaiak, oro har, interesgarria jo du aipatutako puntuak ikastetxeetan aniztasuna sustatzeko erabiltzea.

3.2.- Aintzat hartuta, onarpen-prozesuaren arabera, ikastetxe pribatu itunduetako bi urtekoen gela ez itunduetan dauden ikasleek ikastetxean jarraitu ahal dutela beste onarpen-prozesu bat egin gabe, beharrezkoa da zenbait neurri bideratzea familia-errentak aipatutako geletan matrikulatzeko orduan izan dezakeen eragina arintzeko, familientzat gastu handiagoa izango baita. Abiatu ahal diren neurrien artean, diru-laguntzak aipa daitezke, errenta txikiko familiek bi urteko gela ez itunduetan eskolaratzeko aukera izan dezaten.

3.3.- Eusko Jaurlaritzaren ondoko araua betetzen dela kontrolatzeko neurriak: ikastetxe guztiek, publikoek eta pribatu itunduek, errespetatu behar dutela berandu sartzen diren ikasleak matrikulatzeko ratioa, % 10etik gorakoa. Hori dela eta, lekuen erreserbarekin jarraitu behar da aurre-inskripzio epetik haratago eta matrikulatzeko epetik haratago.

3.4.- Oso interesgarritzat jo da Vitoria-Gasteizko Udalak eta Hezkuntza Administrazioak euren arteko lankidetzan sakon dezaten Erroldako iruzurrak jazartzeko; horrek iruzurrak sortzen baititu ikasleak onartzeko prozesuan.

3.5.- Erlijioari eta laikotasunari dagokionez familien artean dagoen aniztasuna aintzat hartuta, eta eskola-komunitatean zenbait erlijio daudenez, errealitate horrek eskola-segregazioan duen inpaktua aztertu beharra dago, eta zenbait neurri finkatu beharko dira ikasle guztiek edozein ikastetxera joateko aukera izan dezaten.

3.6.- Garrantzitsutzat jo da ikasleak matrikulatzeko prozesuetan amaren, aitaren edo legezko tutoreen jaioterria jasotzea.

4.- Hezkuntza-politika:

4.1.- Beharrezkotzat jo da Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzak ratioa zabaltzeko aukera eman ez dezan eta eskari handiagoa duten ikastetxeetan beste talde batzuk sor ez ditzan, eremu horretako beste ikastetxe batzuetan lekuak gelditzen baldin badira.

4.2.- Horrez gain, oso garrantzitsutzat jo da eskola-segregazio handiagoa duten ikastetxeetan ratioa murrizteko aukera aintzat har dezan, leku gutxiago izateko eta ikastetxe horietan kudeatu behar duten hezkuntza-komplexutasuna arintzeko.

4.3.- Hezkuntza-ibilbideari dagokionez, beharrezkotzat jo da ez lotzea eskola-segregazio handiagoa duten haur eta lehen Hezkuntzako ikastetxeak eta segregazioa ere pairatzen duten bigarren Hezkuntzako ikastetxeak; hots, ibilbideari dagokionez, beste aukera batzuk bilatzea; bestela, ikasleek ibilbidea ikastetxe segregatuetan egiteko aukera baino ez dute izango.

4.4.- Garrantzi berezia du Eusko Jaurlaritzak ondokoa azter dezala: ikasleak nola banatzen diren eskola-mapako eremu bakoitzeko ikastetxeetan. Ikasleen eskolaratzeari buruz benetako diagnostikoa lortzea da horren helburua, gerora begira zenbait ekintza inplementa ditzaten, bai Eusko Jaurlaritzak bai Vitoria-Gasteizko Udalak (azken horrek, Hezkuntza Administrazioaren laguntzarekin), ikastetxe guztietan eta kokatzen diren eremuetan kultura-artekotasuna sustatzeko.

5.- Ikastetxe segregatuei laguntzeko neurriak:

5.1.- Irakasleei dagokienez, ondokoa proposatu da: Hezkuntza Administrazioak eta ikastetxe pribatu itunduek zenbait neurri abian jartzea trebakuntza handiko irakasleak saritzeko eta erakartzeko hezkuntza-arrisku handiagoa duten ikasleak dituzten eskoletara. Halaber, garrantzi berezia du irakasleen egonkortasuna bermatzeak konplexutasun handiagoko ikastetxeetan.

5.2.- Horrez gain, beharrezkotzat jo da zenbait neurri abian jartzea Haur Eskoletan matrikulatzen diren indize sozioekonomiko eta kultural handiko familien eskaria erakartzeko, elkarrekin sar daitezten eskari txikiko ikastetxeetan.

5.3.- Oso interesgarritzat jo da hezkuntza-berrikuntzako proiektuak edota segregazio handiagoko ikastetxeak konpentsatzeari buruzkoak abian jar ditzaten, Eusko Jaurlaritzak zein Vitoria-Gasteizko Udalak (azken horrek Hezkuntza Administrazioaren laguntzarekin), hemengo ikasleak eta indize sozioekonomiko eta kultural handiagoko ikasleak aipatutako ikastetxeetara erakartzeko.

5.4.- Ikastetxe segregatuei dagokienez, ghettoak pixkanaka-pixkanaka txikitzeko zenbait talka-plan abian jartzea garrantzitsua dela proposatu da.

5.5.- Orain dela hamarkada batetik baino gehiagotik Vitoria-Gasteizen badirenez ikasle etorkinen kontzentrazio handia duten zenbait ikastetxe, horietako bakoitzerako zenbait berezko neurri aztertzeko eta inplementatzeko beharra proposatu da, eta egoera aldatzen ez bada, ikastetxea ixteko aukera ere jasoko lukete aipatutako neurriek.

5.6.- Beharrezkotzat jo da Hezkuntza Administrazioak ondokoa bultza dezala: A ereduko talde segregatuak D ereduko talde bihurtzea, batez ere haur eta lehen hezkuntzan.

5.7.- Ohiko epetik kanpo ikasle berriak sartzen badira, oso garrantzitsua litzateke laguntzeko irakasleren bat berehala izatea, sarrera horrek sortzen dituen beharrei behar den moduan erantzun ahal izateko.

5.8.- Beharrezkotzat jo da Hezkuntza Komunitateak behar diren baliabideak eman diezaien, baita berezko baliabideak ere, eta oro har eskaintzen dituen bitartekoak baino gehiago ematea atzeritar jatorriko ikasle edo indize sozioekonomiko eta kultural txikiko ikasle kopuru esanguratsua eskolatzen duten ikastetxeei.

5.9.- Garrantzitsutzat jo da Vitoria-Gasteizko Udalak ondokoa bultza dezala: ezaugarri ezberdinak dituzten eskolen Guraso Elkarteen arteko topaketa, komunikazioa eta lankidetzak, elkarrekin zenbait jarduera susta ditzaten, esaterako, hitzaldiak, guraso eskolak, zenbait hezkuntza-zerbitzuren kudeaketa partekatua etab.

5.10.- Horrez gain, interesgarria litzateke Vitoria-Gasteizko Udalak hainbat eskolaz kanpoko jarduera zonaldeka antolatzeke udal sistema bat finka dezala, prezio publikoen truke eta eremuko ikastetxeetako ikasleentzat; sistemak ez du eraginik izango Guraso Elkarteek arratsaldean antolatzen dituzten eskolaz kanpoko jardueretan.

5.11.- Amaitzeko, atal honi dagokionez, nabarmendu da garrantzitsua dela eskola-segregazioaren antzeko errealitate dituzten ikastetxeak ez fusionatzea.

6.- Desabantailak dituzten ikasleei eta familiei laguntzeko neurriak:

6.1.- Garraiorako, liburu-erretarako, jantokirako eta jarduera osagarrietarako beken sistema nahikoa ezartzea garrantzitsua da. Horrez gain, garrantzitsutzat jo da laguntzak ikasturtearen hasieran ordaintzea, familiek ordaintzea egin dezaten; horri esker, saihestuko dira ikastetxeen irizpideen arabera sortzen diren zenbait egoera, ordaintzeko atzeratzearen ondoriozkoak.

6.2.- Horrez gain, garrantzitsua da laguntzen sistema bat finkatzea errenta txikiko familietako ikasleek bermatuta izan dezaten eskolaz kanpoko jardueretan edo Ikastetxeak, Guraso Elkarteak edo Vitoria-Gasteizko Udalak antolatutako ekintza osagarrietan parte hartzeko aukera.

6.3.- Halaber, beharrezkoa da aipatzea Vitoria-Gasteizko Udalak, ikastetxeek eta Guraso Elkarteek familiei trebakuntza-erretaketa bat eskaini behar dietela, eta horren erreferentzia ikastetxea edo ikastetxearen ingurunea izango dela; zenbait neurri jarriko dira ahulgarritasun sozioekonomikoko egoeran dauden familiak horietan parte hartzeko aukera dutela bermatzeko.

6.4.- Etxetik edo familiaren lanpostutik urrun dagoen ikastetxera joan behar duten ikasleen kasuan, konpentsatzeko zenbait neurri jarri behar direla abian ulertu da.

6.5.- Lehen zikloko haur hezkuntzari dagokionez, Haur Eskolek, udalekoek zein Haurreskolak Partzuergoek, zenbait neurri jarri behar dituzte abian ahulgarritasun

sozioekonomikoko egoeran diren familietako txikiek eskolara doan joateko aukera izan dezaten.

6.6.- Amaitzeko, oso garrantzitsua da laguntzak eskatzeko formularioen eta eskeren diseinua sinplifikatzea, eta prozesu oso konplexuak saihestea, bestela kanpoan uzten ditugu, automatikoki, maila kultural txikiagoko familiak edo hizkuntza dela-eta ulertzeko zailtasunak dituzten familiak.